

# erdiko kaira

Bertso jarriak ARGIAN

## 90 urtez bertsotan dator notizia

Lehen zenbakitik (1919) gaur arte inprimatu dira bertso jarriak ARGIAN, etenak eten. Ehunka izenak erreparatuz gero, tartean sorpresa batzuk hartuko dituzu. Porrusalda historiko honetatik edan nahi baduzu, zatoz ekainaren 6an, 20:00etan Victoria Eugenia egingo den bertso saio berezira. Besteak beste, Eñaut Agirrek bertso jarrien hautaketa kantatuko baitu, Imanol Kamio eta Aitor Atzegaren musikak indartua.

ESTITXU EIZAGIRRE



LEHEN ZENBAKIAN (1919) bertan argitaratu zituen lehen hitz neurtuak ARGIAK. Errenteritar Erramunek Jesusi jarritako koplak eta Urtsuya kaputxinoak Jesus haurtxoari jarritako koplak, hain zuzen. Bostgarren zenbakian argitaratu ziren lehen bertsoak.

### 1960ko hamarkada: Bordatxoaren ondotik

Basarriren asteroko “Nere bordatxotik” orrian, sarri jartzen zuen “danetik nasian” azpiatala, eta bertan gai askori bertso bana jartzen zion: idi demari, kamiotako jende galtzeari, Iruntxiberri eta Irazu korrikalarien arteko apustuari... 1965ean, Basarriren ondoan Hernaniko Ereñozu bailarako luistar baten bertso jarriak argitaratu ziren: Donostian jokaturako Aizkora Txapelketa gaitzat hartuta, Polipasori eskainiak. Handik hilabetera, maiztzean, hasiko ziren gainerako jartzaileak beren

### ARGIAko lehen bertsoa:

Lurra goldatzen ari da  
nekazari gaixoa  
ta izerdiz ta negar-malkoz  
lurra bustitzen dijoa.  
Bai-dauka illun arpegia,  
illunago gogoa.  
Gogor sartu diote-ta  
biotzean aiztoa.

*Jauregitar Koldobika, 1919*

*V. zenbakia*

kasa bertsoak bidaltzen, horrela bertso jarriek ia asteroko maiztasunari ekinez. 1966ko urtarrilean Basarrik idazten duenez: “Zaletasun aundia ari bazterretan sortzen. Astero astero bertso sail bat azaltzeak asko edertzen du gure astekaria”. 1968an gainezka behar zuen Basarriren kaxoiak: “Bertso-jartzalleeri adierazi nai geniekena auxe da: bertso erruz artzen degula bate-tik eta bestetik. Txandaren zai egon be-rra dagola. Eztitezela samindu, beraz, berandutxo argitaratzen baditugu”.

Garai hartan gehien idatzi zuten jartzaileak: Gillermo Albizu, Manuel Matxain, Jesus Lete “Ibaiertz”, Inozentzio Olea, Xanti Zabala “Lexo” eta Luis Errezola “Tximela”. Beste izen batzuk: Teodoro Mujika, Sebastian Salaberria, Uxola, Zendoia, Xanti Iparragirre, Eleuterio Tapia, Luis Jauregi Jautarkol, Migel Arozamena, Joxe Luis Gorrotxategi...

**Bodegón**  
**Alejandro**

Alejandro'ren Bodega dago Donostiako trako hetan, bain ezagutzen dutenak zintza dakite arantz jontan. Mai dan aukera ba-dezu beti jaten bazala edaten, oberik ezin arki ditake merke ta ondo ematen.

Fernán Calbetón, 4  
DONOSTIA

**José Lizaso**  
**Bar Landeta**

Zer nai, artatik erraz ba-dezu edanetan da jontan, ostata onen soza zabaldu zaigu alderdi danetan. Zere zai beti zabalik dago: ez da trabarik etoten, gorputza premiz dezun guzian sartu zaiten Landeta'n.

AZPEITI, LANDETA.  
Urrutizkiña: #1-13-11

**Muebles**  
**Inchausti**

Lasarte'n dagon etxe on [batek] askeintzen dizu ostatu, an dauden gauza zoragarriak bixitatzena prestatu. Apsin, dotorez, berdiñik ezte; ifiola ezin puskatu, MUEBLE bearez baldin INTXAUSTI'NEAN eskatu.

Estación, 19  
Urrutizkiña: 97500  
L A S A R T E

**EDAN ZAZU,**  
**INSALUS!**

Gorputza ondo eztagonean eztago barren girorik, sendagai ona eskutan dezu; etzazu galdu denborik! Bein artzen dunak ezte izaten berriz uzteko gogorik, mairako urrik espaila sortu INSALUS BEZELAKORIK.

Lizartza - Tolosa

Urte hauetan guztietan bertsoa molde ugariz agertu izan da ARGIAN. Besteak beste, baita iragarkietan ere.

Hasierako jartzaile batzuek, gainera, urte luzez eutsi zioten langintzari: Manuel Matxain (Aiete 1916-1999) abildoso hutsa zen: "Tokan, boletan eta bertsoetan 200 kopa irabaziak dauzka" zioen ARGIAN 1968an egindako elkarrizketa batek. Bertsoak jarri zituen 1965etik 1977ra arte. Ibaiztekek 1965etik 1976ra arte, Luis Errezola "Tximela"k 1969etik 1980ra arte eta Xanti Zabala "Lexo"k 1965etik 1985era arte.

Emakumezkoen lehen sinadura 1969an topatu dugu, eta ez zen aipamenik gabe pasa: "Adunako neskatxa batek, bersoak antolatu ditu, Iraola'tar Malen dezute. Zeruko ARGIAK tokirik ezin ukatu ain borondate onez datorren neskatxa bertso-jartzalle bati". Elizberritze lanei jarritako bertsoak ziren bereak.

Kristau zintzoen eran idatzitakoak dira bertso gehienak, eta etxeko gaiak nagusi: perretxikoak, etxeko arkumea, erretako baserria, utzitako jaiotetxeari, nere astotxoari, babarrun jan baten kronika... Maitasun deklarazioak eta zorigaitzeko ibilerak ere lotsagabe ageri dira. Eta kirol gertakariak ere bai: aizkora txapelketa, sega apustuak, Ondarribi ta Pedreñari, futbolari, Urtaini, Atano X.ari... Hamarkadan aurrea egin ahala, ordea, gaurkotasuneko gaiak pisua hartu zuten.

Basarrik ongi-etorria egiten zien lehen aldiz sorta bidaltzen zutenei, eta zuzenketak egin ere bai, Zumarragako honi adibidez: "Esango dizugun ontantxe jarri bear dezu arreta pixkat. Goierrri guziko akatsa da, baña errez zuzendu ditekera. Banakako itzak eta ugalmeenakoak berezten saiatu; 'singularra' ta 'plurala' ondo erabiltzen". Aurreko honek, behintzat, argitaratzeko suertea izan zuen: "Dan daneri sarrera ematerik eztago. Danak ezpaitira bertsolari, norberak

### Goseari

Kafesnea gosaltzen eskasik kazua, eguardian gogorra beti garbantzua. Apaltzeko tilixta platera gozua... pozikan jango nuke zakur sarnosua. *"Tximela" k 1937an jarri, 1967an argitaratuak*

### Illargirako asmotan

Errusiarrak eta Amerikanuak, aruntza dijozenak gogor ta sanuak. Probatu nai dituzte ango platanuak, ezpazaizkate oker irteten planuak. *Segundo Kalonje, 1968*

### Gasolinak igon du

Akerraren adarrak izarretan gora gasolinak igon du nik ez dakit nora. Berriro ez badator lau hankako moda kotxea bizkarrean hartu beharko da. *Etxano, 1976*

ala pentsatuarren. Gure eskura etortzen diran bertso guziak ez tira argitaratzeko modukoak. Baldarrak ere ugari samar baitatoz". Sorta asko jarritako Gillermo Albizuk Basarriren lan hau asko estimatu du: Argitaratzen eta idazkera zuzentzen asko lagundu omen zien bere belaunaldikoei.

### 1970eko hamarkada: Ahuldu, aldatu, asaldatu

1975ean "gure leihatilatik" atalaren barruan argitaratu ziren bertsoak. Baina aurreko beroaldiaren ostean, sailen maiztasuna eta sinaduren aniztasuna apaldu ziren, eta egun pilotak hartu zuen gaien monopolioa: Gipuzkoako Pilota Federazioak, "Euskaltzaindiaren ardurapean" bertso-paper sariketako antolatu zuen, eta bertako baldintza ziren, batetik, pilotari buruzko bertsoak izatea eta bestetik aldizkariren batean argitaratuak izatea.

1976an formatoa aldatu zuen Zeruko ARGIAK eta azken aurreko orria hartu zuen bertsoaritzak, bi astez behin, albitzez eta bertso jarritz osatuta. Urte hartan astekariak bertsoak egiteko gaia jarri zuen: maitasuna. Bitxikeria gisa, Imanol Lazkanok "ezkontzera doanari" jarri zizkion bertsoak, aurtan "banaketaren modari" jarritakoen kontraste, garaian garaiko. Xalbadorrek ere jarri zituen bertsoak, hil zen urte horretan. Xalbadorri berari jarritako bertsoak etorriko ziren hurrengo urtean. Maitasunaz gainera gaurkotasuneko gaiak jarri zizkieten bertsoak: gasolina, Arias-en hitzaldia, presoak etxera, euskara erabilera, hildako hiru mendizalari...

Urte hartan uzta emankorrena Matxain, Florian Oyarbide eta Elorri-Arantza izenez sinatzen zuen Rufino Iraolarena izan zen. Baita ere jarri zituzten bertsoak J. C. Arrosagarayk, Xanti Zabala "Lexo"k, Balendin

Enbeitak, Andoni Sarriegi eta Mendi-buruk, besteak beste.

Urte hartatik aurrera bertsoek uneko egoera sozial eta politiko gordinari gehiago erreparatuko zioten: 1977an jarri zitzaizkion euskara batuari, borroka armatuari, euskaldunen arteko batasunari, alderdi politiko gehiegi izateari, gudaritzari... Xabier Amuriza, Xanti Zabala eta Pello Esnalen sinadurak agertzen dira, aurretik aipatuez gain.

### 1980ko hamarkada: Desafiotik etenera

Julian Ezeiza "Aterpe"k Hernaniko taldearen izenean usurbildarrei bidalitako desafioarekin hasi zuen hamarkada ARGIAK. Bi herrien arteko norgehiagoka eskatzen zuten bertso sorta horren bidez. "Saizartarrak" izenean jaso zuten usurbildarren erantzuna, oldarkorra. Sua itzaltzeko asmoz erantzun zieten, berriro hernaniarrek.

1980an gehien idatzi zutenak Itxaro Borda, Joxe Mari Iturralde, Pello Esnal, Rufino Iraola eta Xanti Zabala "Lexo" dira. Ez ziren bromatarako gaiak: *Egin-en eskela jartzeagatik epaitu nahi zuten Mario Onaindiari, mikeleteei, gartzelako lagunari, Iparraldean hildako bi borrokalari gazteei, Joxe Erramon Ansa gazte erailari...* Everest igo berri zuen Martin Zabaletak bertso jarri jaso zituen zorionak, baita txapela jantzi berri zen Xabier Amurizak ere, Joxe Mari Iturralde eta Xanti Zabala "Lexo"ren eskutik. Txapelketa horretan epaimahaiko zen Jesus Mari Etxezarreta Izazpik bertsoan egin zuen saio haren kronika, Amurizak bertsoari egingo zion ekarria iragarri.

1985ean ARGIAK bertso-paper lehiaketa antolatu zuen, "bertsolaritza idatzia sendotzen laguntzeko asmoz". Gaia libre zen, eta jasotako lanen artean batzuk argitaratu ziren bertsoen orrian. Besteak beste, Andolin Eguzkitzarenak. Balendin Enbeitak eta Itxaro Bordak idatzi zituzten urte hartan bertso gehien, eta beste sinaduren artean nabarmentzen dira Jokin Arregi (Venezuelatik), Mikel Taberna, Joxe Mari Arrieta, Belza Hernaniko preso... Preso eta hildako gudarien gaien ondoren, xelebrikeriei jarritako sail asko argitaratu ziren: mus parti-

### 1980ko Txapelketaz

Garai batean bertsoari tabernetan zen ezarri, baina gerora antzerki eta plazara zuten ekarri. Lan hontan aski saia zirenak Uztapide ta Basarri. Ta oraingoak haize berri bat dakarkigula igarri, ikastetxe ta goi-mailarako bidean diguten jarri.

*Jesus Mari Etxezarreta "Izazpi", txapelketa horretako epailea*

### Urtarrilaren 1eko haserreaz!

Nola oiloen inguru hortan beroki dauden xitoak, Euskarak hala, kultura mailan, baditu bere mitoak: poetak eta bertsolariak dira barnean itoak, Euskal Herriko "argi" ederrak ditugu arras pitoak!

*Itxaro Borda, 1980*

da bati, oporrei, txakur baten larrutik... Baina Itxaro Bordarenak beti ziren badaezpadakoak.

1989an, ARGIAko sail eta edukien antolaketa berriarekin batera, eten zen bertso jarrien soka. Argitaratu zen azken saila Xenpelar Bertso Eskolarena da, bere inguruko karretera eta trafikoaren kritika eginaz, gaur sinatzeko modukoak.

### 2006tik urte askotarako!

2006an ekin genion berriro bertso jarriak argitaratzeari. Enkarguzkoak dira oraingo hauek, Imanol Lazkano da lehengo ohiturari eutsiz, egin ahala bidaltzen dituen bakarra, gure deiaren zain egon gabe. Iritzi sailaren barruan, hiru urtean 35 egileren bertsoak kantatu ahal izan dituzu ([www.argia.com](http://www.argia.com)-en dituzu denak). Hona denboraldi batez kolaboratzaile finkoak izan direnak: Xebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Xabier Paya, Xabier Silveira, Nerea Elustondo, Jon Maia, Jokin Sorozabal, Aitor Sarriegi, Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Unai Agirre eta Alaitz Sarasola. ■

**INGURU ABENTURA**

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak eta askoz gehiago...

- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Banderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho más...

[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com)  
[info@inguruabentura.com](mailto:info@inguruabentura.com)  
 Tel: 635 748 948  
 San Juan 18  
 Albeniz - Asparrena  
 Araba